



IBAR EZKERRA
IKASTOLA

- ARTIKULUAK
- LAN ESKAINTZAK
- IKASTAROAK



EDUKIA:

[LAN](#) 2

[ESKAINZAK](#)

Infoempleo

Tecnoempleo

Lanbide

Beste batzuk

[IKASTAROAK](#) 3

Inem

Lanbide

Hobetz eta
Diputazioa

IBAR 4
EZKERRA

Liburu elektronikoaren irakurgailuak: Tinta elektronikoa isuri da liburuen gainera

Liburu elektronikoak irakurtzeko gailuek iraultza ekarriko dutela dirudi eleberrien eta ikasliburuen mundura

Musikazaleek ezin sinetsiz bezala begiratzen zieten duela ez asko euren disko bildumei. Ulertzen hasiak ziren MP3ak eta musika entzuteko gailu eramangarriek desagerraraziko zituztela. Biniloz eta disko konpaktuz beteta zeuden apalategi haiek sakelari eraman ahal izango zituzten lastez, iPod eta antzeko tresnekin. Musika guzti-guztia sartzeko adina leku izango zuten.

Liburuzaleek ere susma zezaketen euren liburutegietara ere iritsiko zela aro digitalaren haizea. Ordurako hasiak ziren autore eskubiderik gabeko lanak digitalizatzen eta Sarean doan eskaintzen (hori egiten du, adibidez, [Gutenberg proiektua](#)). Urte batzuk geroago, [Google Print](#) proiektua aurkeztu zuten, asmo handikoa bera: 10 urtean 15 milioi liburu digitalizatu nahi ditu Google bilatzaileak.

Aspalditik dago jendea zain

Musikaren munduan aspaldi samar gertatu da formatu aldaketa, baina letren eremuan uste baino gehiago ari zaio kostatzen. Abesti bat CD batean entzun edo MP3an entzun, ez dago alderi handirik kalitatean, baina liburu bat irakurri behar denean, askoz ere erosoagoa da paperetik egitea, eta ez ohiko pantailetan (eskuko telefonoan edo ordenagailuan). Baina arazo hori ere gainditzeko bidean da teknologia. Amazon etxek, adibidez, Kindle izeneko liburu irakurgailu elektronikoa jarri du merkatuan, eta jendea hasi da aurreiritziak baztertzen eta zalantzak uxatzen.



Liburu elektronikoa ordenagailu merke bat baino ez da, liburu fin eta txiki baten neurrikoa, baina haren pantaila ez da orain arte ezagutu ditugunak bezalakoa: "tinta elektronikoa" ageri da pantaila horietan, eta begiak ez dira nekatzen. Ordenagailuen LCD pantailak argia igortzen dute, eta bereizmen txikia ematen dute, irudiak etengabe ari direlako sortzen; berdin du bideo bat ikusten edo dokumentu bat irakurtzen ari bagara, beti ari da birstortzen, segundoan dozenaka aldiz. "Tinta elektronikoa" erakusten duten pantailak, berriz, hainbat eta hainbat bolaz osatuta daude; bola horiek kolore bat daukate alde bakoitzean, eta birak ematen dituzte, erakutsi nahi duten irudia ikus dezan irakurleak (estadio baten harmailetakoa mosaiko bat izango balitz bezala). Era horretan, irudia geldirik egoten da orria pasatu arte, eta begia apenas nekatzen den; bateria ere oso gutxi kontsumitzen du, beste orri bat erakusten duenean soilik gastatzen baitu, hau da, bolek bira ematen dutenean. Liburu elektronikoak asteetan funtziona dezake behin bateria kargatuta.

Liburu elektronikoak eskuratzeko denda batzuk

- Gaztelaniazko liburuak erosteko bada webgune bat baino gehiago. Hortxe dago Bubok ([www.bubok.com](#)), esate baterako, edota Mi elibro ([www.mielibro.com](#)). Euro bat baino apur bat gehiago ordainduta eta gehienez 6 euroren truk eskuratu daitezke horietan liburu elektronikoak, eta argitaletxe zein idazleentzako ere negozio aukerak eskaintzen dituzte.

- Ingeleseko literatura sarean eta doan jartzeko proiektua beste hizkuntza batzuetan baino aurreratuago dago. Horren adibide da Gutenberg proiektua ([www.gutenberg.org](#)). 20.000 titulu baino gehiago ditu ingelesezko katalogoak. Laurehun bat eskaintzen ditu txineraz, berrehun inguru gaztelaniaz eta batere ez, oraingoz, euskaraz.

- Euskaraz ere bada ekimen aipagarriak literatura sarean jartzeko. Bat, behintzat, ezinbestean nabarmendu beharrekoa, Susa argitaletxearen Armiarma webgunea ([www.armiarma.com](#)). Idazleei buruzko informazioa eta liburu kritikak jasotzeaz gain, euskal poesia mundura ezagutarazteko poemen itzulpenak eskaintzen ditu, eta euskal klasikoaren gordailua ere bai, 1936 urtea arte idatzitako lan guztiak sarean jartzeko asmoz sortua.

LAN ESKAINTZAK



“Aurrera
begiratzen ez
duena atzean
dago”

“Balantza duen
aldera erortzen
da arbola”



infoempleo.com

LANPOSTUA

Administrador de Sistemas

ENPRESA

ABGAM SEGULA TECHNOLOGIES S.A.

tecnoempleo.com

LANPOSTUA

Técnico De Atención A Usuarios
Fp Sistemas Sin Experiencia
Administrador De Bases De Datos
Diseño Web 2.0
Programador Web (php, Mysql)
Administrador/a De Sistemas
Desarrollador Contenidos Web
Técnico Informático.

ENPRESA

Ibermatica, S.A.
Thales España grp SAU
Insa
Grupo Atolon
Grupo Atolon
Consultec
Contemática S.L
Informatica Serinfor

IBARLAN

Pilateseko monitorea, behar da Gorlizen.
Astelehen eta asteazkenetan 16:00tik 17:00ra.
Interesatuak deitu 946156153 telefonora edo bidali e-maila
eraginkz@gmail.com ra.
Eragin kirol zerbitzuak.



Beste eskaintza batzuk

GUEDAN SERVICIOS DEPORTIVOS, S.A. Tel: 94 439 80 10. www.guedan.com
(2009/10/11, 2009/10/18, 2009/10/25 eta 2009/11/01eko El Correo aldizkarian)

- Socorristas acuáticos, monitores de natación.
- Monitores deportivos: Pilates, Yoga, Spin-bike, Aerobic, Tenis, Padel, Patinaje, ...

EMTESPORT central@emtesport.com
(2009/10/04ko El Correo aldizkarian)

- TAFAD
- Socorristas acuáticos
- Monitores deportivos: Natación, SOS, Pilates, Yoga, Gimnasio, Tenis, Paddle, Gimnasia rítmica, Taichi, Spinning, Bailes, Aquaerobic, Artes marciales, Kick boxing,...

PROFESORES DE: Danza, judo, aerobic, gimnasia rítmica (2009/10/04ko El Correo aldizkarian) aecurriculum@gmail.com




Lanbide.net



Hasiera data	Ikastaroa	Ref.
01/02/2010	Administracion de bases de datos	68814
01/02/2010	Administracion de un sistema multiusuario	68401
16/11/2009	Creacion de paginas web dinamicas con php	68570
11/01/2010	Desarrollo paginas web con php, apache y mysql	68831
22/02/2010	Diseño de paginas web (html, css...)	68640
26/04/2010	Diseño grafico multimedia	68648
18/01/2010	Elaboracion y diseño de bases de datos	68402
16/11/2009	Elaboracion y diseño en bases de datos	68504
25/11/2009	Joomla: portales dinamicos	68833
19/04/2010	Programacion en lenguajes estructurados a nivel avanzado (php)	68776

www.hobetuz.net-en kontsultatu ahal dira dauden ikastaroak





IBAR EZKERRA IKASTOLA

Alonso Allende multzoa z/g
48920 PORTUGALETE
BIZKAIA

Tel: 94 472 43 66

Fax: 94 472 17 31



www.ibarezkerra.net

IBAR EZKERRA Ikastola Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako **enplegu eta Lanbide Heziketako zentroa** da. Nerbio ibaiaren ezker aldeko Portugalete udalerrian 2001 – 2002 ikasturtean abian jarri zen.

IBAR EZKERRA Ikastola Kooperatiba Elkarte da. Irabazi asmorik gabekoa eta bere sustatzaileak ikastolak izan dira.

Ikastolaren inguruko eginkizuna lanbide heziketa-eskaintza kudeatzea da enpleguari begira eta hasierako edo berariazko formakuntza kalitatekoa aukeratu duten ikasle euskaldunen eskari eta espektatibak betetzeko gauza dena. Halaber, lanbide heziketaren gainontzeko azpisisistematan (etengabeko eta lanerako formakuntzetan) euskararen erabilera sustatu nahi du.

IBAR EZKERRA Ikastolak Bizkaiko Ikastolen Elkarte – Partaide eta Euskadiko Kutzaren laguntza eta onespena dauka.

IBAR EZKERRA Ikastolak ematen dituen hezkuntza zerbitzuetan, ISO 9001:2000 kalitatearen aseguramenduaren ziurtagiria lortu zuen 2004an. Gaur egun, erabateko kalitatearen eredurantz abiatzen da.

Euskarazko Wikipediak 25.000 artikulua

[Euskarazko Wikipediak](#), sarean den euskal entziklopedia aske handienak, 25.000 artikuluen muga gainditu du. [Wikipedia](#) entziklopedia eleanitza da, eduki askeduna eta dohainekoa, edonork eraiki eta ekarpenak egiteko aukera ematen duena.

Entziklopedia tradizionalarekin ez bezala, Wikipediak bere komunitatearen ahaleginarekin uzten du artikulua sortzea, gainbegiratzea edota zuzentzea. Komunitate horren partaideei wikilari edota lankide deritze. Ez dago artikulua berrikusten dituen lantalde profesionalik, wikilarien eskuetan geratzen da dena. Ez dago agintzen duen inor, erabakiak wikilari guztien arteko bozketak bidez ematen baitira, ahal den adostasun handiena bilatuta betiere.

Proiektu asko sortu izan dira historian zehar Euskal Herrian auzolanaren bidez. Ez dugu inolako dirurik edo ondasun materialik jasotzen eginiko lanagatik. Hala ere, ikasten den guztia, gisa honetako proiektu baten partaide izatea edota Argia Sarien bitartez izandako aitortpena, hori dena ordainezina da.

Gizartean Internetek leku gero eta garrantzitsuago duenez, beharrezkoa da euskararentzat sarean proiektu sendo eta oinarritzakoak izatea. Horien artean dago Wikipedia, gizateria osoaren jakintza doan eta aske banatzeko sortu zen proiektua. Horretan sinesten dugu: internauta euskaldunek, dauden lekuan daudela, gizadiaren informazio ahalik eta osatuena jasotzeko aukera izatea, beste hizkuntzetara jo behar izan gabe.

Jakintza askean sinesten dugu, jakintza baita aske egiten gaituena, jakintza baita gizarteari emateko daukagun opari onena.

Euskarak Interneten leku garrantzitsua izan dezan ari gara lanean, euskara garatu eta zabaltzeko beharrezkoa den ingurua baita sarea, eta horren alde jarraituko dugu lanean. Euskara teknologia berrietan, sarean, komunikazioaren munduan sustatzen duen baliabidea da Wikipedia; denon artean, auzolanarekin, euskaldun guztiok euskaldun guztiontzako sorturiko edukia biltzen duena.

Zuk ere egin dezakezu jakintza aske eta euskaldunaren alde, edonork hartu baitezake parte proiektu honetan: ez da inolako gaitasun berezirik behar, ekarpen guztiak ongi etorriak bezain beharrezkoak dira. Hurrengoan, agian zu, irakurle, edota zure auzokoa, lankidea, senidea... izango zarete euskarazko jakintza askearen sortzaile eta sustatzaile.

(GOTZON EGIA, MIKEL ITURBE eta ARKAITZ ZUBIAGA Euskal Wikipediaren komunitateko lankideak dira)